

Igeldoko Itsas Aurre eraikinean, 2025eko apirilaren 8an eginiko Igeldoko Toki-entitate txikiaren Batzorde Kudeatzailearen ez Ohiko bilkuraren Akta agiria, 20:02tan hasi eta 20:18tan amaitua.

ERATORRIKOAK:

1. Iker Zinkunegi Arrillaga, Batzorde Kudeatzaileko Presidentea.
2. Karmele Garmendia San Sebastian
3. Eneko Dorronsoro Aierbe
4. Pello Galarraga Treku
5. Iñigo Barandiaran Benito

Idazkaria: Iruñe Larrea Sistiaga, Donostiako udaleko Idazkariaren eskuordetzaz.

Donostiako udaleko Idazkari Nagusiak, 2025eko apirilaren 8an, ORDEZKARITZA eman dio Lege zuzendaritzaren ondoko teknikaria den IRUNE LARREA SISTIAGA andereari, 2025eko apirilaren 8an burutu den Igeldoko Toki-Entitate Txikiko Batzorde Kudeatzailearen bilkuran, aholkularitza eta idazkaritza betekizunak egiteko.

Presidenteak batzarrari hasiera eman dio eta eguneko gai zerrendako akordio proposamenak aipatu ditu. Horretaz gain, bilkuran adostu beharreko gaiak, aurrez legeak ezartzen dituen epeak betez, Batzorde Kudeatzaileko kideei bidali zaizkiela gogoratu du, eta bilkura aurretik, behintzat inork ez duela ekarpenik edo zuzenketarik eskatu azpimarratu du. Ondoren gai zerrendari ekin zaio.

1. IGELDOKO TOKI-ENTITATE TXIKIAREN IDAZKARI, KONTU-HARTZAILE ETA DIRUZAIN

ORGANOAK ONARTZEKO PROPOSAMENA:

24ko otsailaren 22an Donostiako Osoko Bilkurak, Igeldoko toki-entitate txikia sortzeko amaierako erabakia hartu zuen; eta erabaki horren zati gisa «Igeldoko toki entitate txikiaren proiektua» deitu dokumentua onetsi zuen (2024ko urriaren 24ko UdalbatzaK zuzendu eta osatu zuena).

Aipatu proiektuan, Toki entitate txikiaren Idazkaritza eta kontu-hartzailetza funtzioak beteko dituen lanpostuari dagokionez, proiektuaren **7.4.12** atalean honako hau adierazi zen:

Administrazio orokorreko teknikari bat: Haren eginkizunak izango dira administrazio-funtzioei dagozkien jarduera propioak egitea; adibidez, proposamenak egitea, ikuskatzea, kontrolatzea, planifikatzea, gauzatzea, arauak egitea eta antzekoak. Idazkaritza, lege aholkularitza eta kontu-hartzailetza eginkizunak ere egin ditzake. Nolanahi ere, Udaleko Idazkaritza Nagusiak izendatuko du Idazkaritza/Kontu-hartzailetza eginkizunak beteko dituen pertsona (dela AOT, dela beste formula bat), eta Udalaren eta Udaleko kontu-hartzailearen eskuordetzaz jardungo du gaikuntza nazionaleko eta zuzendaritza juridikoko eginkizun erreserbatuetan.

Horretaz gain, **7.4.12.b** atalean ondorengoa zehazten dute Zerbitzu horiek kudeatzeko moduari dagokionean:

Igeldoko Toki-entitate txikiko administrazio orokorreko teknikariak izan eta egingo ditu hango idazkari-kontu-hartzaile ahalmenak eta eginkizunak, Udaleko gaikuntza nazionalako funtzionarioek eskuordetutakoan.

Martxoak 29ko 10/2019 Errege Dekretuaren 3. artikuluan ezartzen dira, udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko Toki-erakunde diren erakundeetan idazkari, kontu-hartzailetzako eta diruzaintzako eginkizunak betetzeko irizpideak.

Araudi horren arabera, udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko Toki-entitate diren erakundeetan erreserbatutako eginkizunak, aplikagarri diren autonomia-erkidegoko araudian ezartzen den moduan beteko dira, eta halakorik ezean, honako hauek bete ahal izango dituzte lanpostu horiek:

1. Udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeari dagokion Udalaren Estatuko gaikuntza duen toki-administrazioako funtzionarioak.
2. Dagokion udaleko funtzionarioak edo probintzia-diputazioko laguntza-zerbitzuek
3. Halakorik ezean, gaitasun nahikoa duen beste edozein pertsonak.

Era berean, udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko toki-erakundean erreserbatutako lanpostuak sortu ahal izango dira, modu independentean, eginkizunak horiek betetzeko, eta dagokion autonomia-erkidegoak sailkatu beharko ditu.

Igeldoko Toki-Entitate txikia sortu berria izanik eta lanpostuak sortzeko eta betetzeko prozesuan egonik, Entitate-Txikiak behin-behinean bertako langile propioak izan arte Idazkaritza, kontu-hartzailetzako eta diruzaintzako eginkizunak betetzeko ezinbestean Donostiako Udalaren laguntza beharko du.

Hori dela eta, Entitate-Txikiaren administrazio orokorreko teknikari lanpostua bete eta bere funtzioak zeintzuk izango diren zehaztu arte, hasiera batean, Donostiako udaleko Idazkari Nagusia, Kontu-hartzailea eta Diruzaina, edo beraiek eskuordetzaz egoki jotzen duten Donostiako udaleko funtzionarioak, Igeldoko Toki-Entitate txikiko idazkari, kontu-hartzaile eta diruzain izatea proposatzen da.

Hortaz, apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 4 eta 22 artikuluan; Toki Araubidearen Testu Bat egina 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 41.1 artikulua; eta azkenik, udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeetan batzorde kudeatzaileak eratzea arautzen duen ekainaren 10eko 608/1988 Errege Dekretuak, xedatutakoaren arabera, aurretik edukiaren azalpenak emanda eta eztabaida izanda, Igeldoko Toki-Entitate Txikiko Batzorde Kudeatzaileak, ondorengoa erabaki du aho batez:

ERABAKIAK

LEHENENGOA.- Donostiako Udaleko Idazkariak, Kontu-Hartzaileak eta Diruzainak, edo horien

eskuordetzaz dagokion udal funtzionarioak, kontrako erabakia hartu arte, gaikuntza nazionaleko beren eremuko eginkizunak, Igeldoko toki-erakunde txikiaren organoetan bete ditzaten onartzea.

2. 2025EKO MARTXOAREN 6AN IZANDAKO BILERAREN AKTA ONARTZEA, ONTZAT JOZ GERO.

Batzorde Kudeatzaileko Presidenteak norbaitek oharren bat egin nahi ahal dion aurreko aktari, 2025eko martxoaren 6an eginiko ezohiko bilkurarena eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartuta geratzen da

3. BATZORDE KUDEATZAILEAREN LEHENDAKARIAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA

Igeldoko Batzorde kudeatzaileari jakinaren gainean jartzeko, hitzez hitz ondoren jasotzen den dekretuaren berri eman da:

Igeldoko Batzorde kudeatzailearen lehendakariaren 01/2025 ebazpena, 2025eko apirilaren 1ekoa:

Ebazpen hau emateko eskumena Batzorde Kudeatzaileko Lehendakariari dagokio; apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21 artikuluan; Toki Araubidearen Testu Bat egina 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 40 artikulua; eta azkenik, udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeetan batzorde kudeatzaileak eratzea arautzen duen ekainaren 10eko 608/1988 Errege Dekretuak, xedatutakoaren arabera.

EBAZTEN DUT:

BAT: Karmele Garmendia San Sebastian Igeldoko Toki-Entitate txikiko Batzorde Kudeatzaileko presidenteorde izendatzea, indarrean dagoen tokiko araudiak ematen dizkion eskumen guztiekin.

BI: Ebazpen hau jakinaraztea; Batzorde Kudeatzaileari honen berri ematea, hark egiten duen lehen bilkuran; eta, laburtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Hiru: Ebazpen hau, Batzorde kudeatzaileko Presidentearen Ebazpen Liburuan jaso behar da, eta hartzen den egunaren biharamunetik aurrera izango du eragina.

4. Batzorde Kudeatzailearen ohiko bilkuren eguna eta ordua finkatzeko erabakia.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2024ko abenduaren 20an argitaratu zuen 58/2024 Foru Dekretuaren bidez, Igeldoko Toki-entitate txikia eratu zuen, eta, hain zuzen ere dekretuaren hirugarren atalak zehazten zituen zeintzuk izango ziren Igeldoko Entitate-txikiaren Gobernu-organoak:

a) Auzo-alkatetza, kide bakarreko organo gisa.

b) Auzo-batzordea, kide anitzeko organo gisa: auzo-alkateak eta 4 kidek osatua.

Hala ere, dekretuaren zazpigarren atalak ezartzen duen moduan, Igeldoko Toki-entitate txikiaren sorreratik 2027ko maiatzeko udal hauteskundeetara bitarte, toki-entitate txikia Batzorde Kudeatzaile batek zuzenduko du, eta batzorde kudeatzailearen kideak Gipuzkoako Foru Aldundiak izendatuko ditu.

Hain zuzen ere, Diputatuen Kontseiluak, 2025eko martxoaren 4an eginiko bilkuran, Igeldoko toki-entitate txikiko batzorde kudeatzaileko kideak izendatu zituen eta ondoren, 2025eko martxoaren 6an Igeldon egindako bilkuran, Batzorde kudeatzailea eratu zen. Bilkura berean, Iker Zinkunegi Arrillaga Batzorde Kudeatzailearen lehendakari bezala izendatu zen, eta kide bezala: Karmele Garmendia San Sebastian, Eneko Dorronsoro Aierbe, Pedro Maria Galarraga Treku eta Iñigo Barandiaran Benito.

Igeldoko Toki-entitate txikiko auzo-batzarrari, edo behin-behinean Batzorde kudeatzaileari bere burua antolatzeke duen ahalmenari ezertan eragotzi gabe, bilkuretarako deialdiak eta bere funtzionamendua, bai eta erabakiak hartzeko behar diren gehiengoaren araubidea ere, udalbatzari indarreko lege-xedapenak aurreikusitakoen arabera izango dira.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko Toki Araubidearen Legearen 46.artikuluaren arabera, bilkura horiek aurrez ezarritako maiztasuna izango dute, eta bilkurak ohiko eta ezohikoak izan daitezke eta baita presazkoak ere.

Lege horren baitan, Batzorde kudeatzaileak gutxienez hiru hilean behin egingo ditu ohiko bilkurak, eta lehendakariaren aginduz deituko dira, gutxienez bi egun baliodun lehenago, premiazko arrazoiak daudenean izan ezik; kasu horretan, 24 ordu lehenago deitu ahal izango dira. Lehendakariak osatuko du gai zerrenda, eta Batzorde kudeatzaileko kideei banatuko zaie, gutxienez bi egun baliodun lehenago.

Igeldoko Toki-Entitate txikia eratu berria izanik, lehen hilabeteetan, Batzorde kudeatzaileak erabaki ugari hartu beharko ditu eta horregatik, hasiera batean hileroko ohiko bilerak beharrezkotzat jotzen dira. Etorkizunean ordea, legeak ezartzen dituen mugak errespetatuz, 2 edo 3 hilero egin litezke ohiko bilkurak. Bestetik, udarako opor etenaldiak errespetatuz, abuztuan bilkurarik ez egitea proposatzen da.

Hortaz, apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 4 eta 22 artikuluan; Toki Araubidearen Testu Bat egina 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 41.1 artikulua; eta azkenik, udalerrira baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeetan batzorde kudeatzaileak eratzea arautzen duen ekainaren 10eko 608/1988 Errege Dekretuak, xedatutakoaren arabera, aurretik edukiaren azalpenak emanda eta eztabaida izanda, Igeldoko Toki-Entitate Txikiko Batzorde Kudeatzaileak, ondorengo erabaki du aho batez:

ERABAKIAK

LEHENENGOA.- Batzorde Kudeatzaileko ohiko bilkurak, abuztuan izan ezik, hilean behin egitea, hileko lehen ostegunetan, arratsaldeko 20:00tan Itsas Aurren.

BIGARRENA.- Batzorde Kudeatzaileko Lehendakariari bilkura eguna aurreratu edo atzeratzeko eskumena ematea, betiere, bilkura hori jaiegunekin edo ustekabeko gertakariekin batera suertatzen bada,

eta gehienez astebetez aurreratu edo atzeratzen bada. Kasu horretan, aldezturik, Batzorde Kudeatzaileko kideei jakinaraziko die.

5. 2025EKO EKITALDIKO IGELDOKO TOKI-ENTITATE TXIKIAREN AURREKONTUAREN HASIERAKO ONARPENA.

24ko otsailaren 22an Donostiako Osoko Bilkurak, Igeldoko toki-entitate txikia sortzeko amaierako erabakia hartu zuen; eta erabaki horren zati gisa «Igeldoko toki entitate txikiaren proiektua» deitu dokumentua onetsi zuen (2024ko urriaren 24ko UdalbatzaK zuzendu eta osatu zuena).

Aipatu projektuan, Toki entitate txikiaren aurrekontuari dagokionez, proiektuaren 7.7.12 atalean honako hau adierazi zen:

“1. Igeldoko Toki Entitate Txikiaren aurrekontua Auzo Batzarrak proposatuko du, eta Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Udalaren aurrekontu osoa onartutakoan (Toki Entitate Txikiarena barne) izango da hura ere behin betiko zehaztuta.

2. Toki Entitate Txikiaren aurrekontuaren osaera, kapituluaren arabera banaketa eta ekitaldiaren amaierako kitapena Donostiako Udalaren Kontu-hartzaileak parte izan ondoren egingo da, Auzo Batzarrak onartuko du eta Donostiako Udalaren Osoko Bilkurari dagokio behin betiko onespenez ematea. Toki Entitate Txikiaren aurrekontuaren onarpena eta likidazioa Donostiako Udalarenarekin batera finkatuko dira.”

Proiektu horren 9.1 atalean Donostiako Udalak Igeldoko Toki Entitate Txikiari gutxienezko diru-sarrerak bermatuko dizkiola zehazten zen, bere antolamendu eta funtzionamendurako, bere eginkizunak betetzeko eta bere eskumen propioak baliatzeko, bai eta berariaz eskuordetzen zaizkionak betetzeko ere. Hori horrela izanik, Donostiako Udalbatzak 2024ko abenduaren 19ko bilkuran Aurrekontu Orokorrean ondorengo bi ekarpen hauek onartu zituen Igeldoko Toki-Entitate txikiarentzat:

1. Igeldoko Toki Entitate txikiari 2025 urteko ekitaldirako gastu korronterako diru-ekarpena: 1.142.270,00€
2. Igeldoko Toki Entitate txikiari 2025 urteko ekitaldirako kapital gastuetarako diru-ekarpena: 357.703,00 €

Hala ere, Igeldoko Toki-Entitate Txikiaren sorrerak atzerapen eta zailtasun asko izan ditu; Izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2024ko abenduaren 20an argitaratu zuen 58/2024 Foru Dekretuaren bidez, Igeldoko toki-entitate txikia eratu bazuen ere, 2025eko martxoaren 6an eratu da Igeldoko Toki-Entitate Txiki Batzorde Kudeatzailea, eta, Batzorde kudeatzailearen lehen bilkura datorren apirilaren 8an izango da.

Atzerapen horien ondorioz, 2025 urteko ekitaldirako Igeldoko Toki-Entitate Txiki aurrekontuaren onarpena, Donostiako Udalaren 2025eko ekitaldiaren Aurrekontu orokorraren behin-betiko onespenez

ondoren egingo da, betiere, Donostiako udaleko Udalbatzak Igeldoko Toki-Entitate Txikiarentzat onartutako ekarpenaren zenbatekoak eta mugak errespetatuz.

Hortaz, 2025eko Ekitaldirako Igeldoko Toki-Entitate Txikiko Aurrekontu Orokorra osatu da 500/1990 Errege Dekretuarekin eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauarekin bat etorriz.

Gainera, Aurrekontu Orokorra osatu da, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 6. artikuluen arabera eranskinekin eta dokumentazioarekin, Igeldoko Toki-Entitate Txikiko batzorde kudeatzaileari aurkeztuko zaiona, onar dezan.

Azkenik, aurrekontu honek Donostiako Udalaren Kontu-hartzailetzako aldeko txostena jaso du.

Hortaz, apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 4 eta 22 artikuluan; Toki Araubidearen Testu Bat egina 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 41.1 artikulua; eta azkenik, udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeetan batzorde kudeatzaileak eratzea arautzen duen ekainaren 10eko 608/1988 Errege Dekretuak, xedatutakoaren arabera, aurretik edukiaren azalpenak emanda eta eztabaida izanda, Igeldoko Toki-Entitate Txikiko Batzorde Kudeatzaileak, ondorengoa erabaki du aho batez:

ERABAKIAK

LEHENENGOA.- Igeldoko Toki-Entitate Txikiaren 2025eko Ekitaldirako Aurrekontua onartzea. Aurrekontua 1.499.973 eurotan berdinduta dago, eta abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 6.1 artikuluen arabera eranskinak eta dokumentazioa biltzen ditu.

BIGARRENA.- Aurrekontu-exekuziorako Araua onestea.

HIRUGARRENA.- Igeldoko Toki Entitate Txikiko langileen 2025eko plantilla onartzea, erabaki honi erantsitako agiriaren arabera, eta erabaki horren berri ematea Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioari eta Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari.

LAUGARRENA.- Espedienteari indarreko legezko xedapenetan ezarritako tramitazioa ematea. Horrela, jendaurreko epean inork erreklamaziorik aurkeztu ez badu, aurrekontua behin betikoz onetsirik geldituko da, bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

6. IGELDOKO TOKI-ENTITATE TXIKIAREN DIRULAGUNTZETARAKO 2025-2027 PLAN ESTRATEGIKOAREN ONARPENA.

Sektore publikoaren finantza-jardueraren zati handi bat dirulaguntzen bitartez bideratzen da, finantza arloko laguntza neurriak baliatuz pertsona eta erakunde publiko edo pribatuen eskari sozial eta ekonomikoei erantzuteko.

2024ko otsailaren 22an Donostiako Osoko Bilkurak, Igeldoko toki-entitate txikia sortzeko amaierako erabakia hartu zuen; eta erabaki horren zati gisa «Igeldoko toki entitate txikiaren proiektua» deitu dokumentua onetsi zuen (2024ko urriaren 24ko UdalbatzaK zuzendu eta osatu zuena).

Proiektu horretan zehazten zen bezala, Igeldoko Toki-entitate Txikiak bere eskumenen eremuan dirulaguntzak eman ahal izango dizkie onura publikoko edo gizarte intereseko jarduerak edo helburu publiko bat sustatzeko jarduerak egiten dituzten erakunde publiko edo pribatuei eta partikularrei.

Horretarako, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikulua arabera, Herri Administrazioetako organoek Diru Laguntzen Plan Estrategiko bat onartu behar dute, eta bertan zehazten dira plan horiek bete behar dituzten oinarritzko arau eta printzipioak. Aipatutako 8. Artikulu hori Dirulaguntzen Legearen Erregelamendua onesten duen 887/2006 Errege Dekretuko 10. artikulutik 15.era bitartekoak garatu dute, eta bertan ezartzen dira zeintzuk izan behar duten printzipio gidariak; Diru Laguntzen Plan Estrategikoen eremua, edukia eta, haiek onesteko eskumena zeinek duen eta egin behar zaien jarraipena ere zehazten dira.

Hori dela eta, Igeldoko Toki-Entitate txikiko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa prestatu da 2025-2027 urteetarako. Plan Estrategiko horrek, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak zehazten dituen printzipioak betetzen ditu; egonkortasuna, gardentasuna eta eraginkortasuna. Gainera, dirulaguntza horien helburuak eta ondorioak zehazten ditu bertan, baita laguntza horien epe, kostu eta finantzaketa bideak ere. Horretaz gain, Igeldoko Toki-Entitate Txikiaren Dirulaguntza Plan Estrategikoak aurrekontuaren egonkortasunari eusteko helburuak betetzen ditu, baita publizitatea, gardentasuna, lehia, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza bezalako printzipioak ere.

Azkenik, Plan Estrategikoa soilik 2025-2027 urteetarako onartzea proposatzen da; Igeldoko Toki-entitate Txikiaren sorreratik 2027ko maiatzeko udal hauteskundeetara bitarte, toki-entitate txikia Batzorde Kudeatzaileak zuzenduko duelako, eta epe hori amaituta, dagokion Auzo alkateak proposatu beharko duelako hurrengo plan estrategikoa, eta dagokion Auzo-Batzarrak eman beharko diolako oniritzia.

Hortaz, apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 4 eta 22 artikuluan; Toki Araubidearen Testu Bat egina 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 41.1 artikulua; eta azkenik, udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeetan batzorde kudeatzaileak eratzea arautzen duen ekainaren 10eko 608/1988 Errege Dekretuak, xedatutakoaren arabera, aurretik edukiaren azalpenak emanda eta eztabaida izanda, Igeldoko Toki-Entitate Txikiko Batzorde Kudeatzaileak, ondorengo erabaki du aho batez:

ERABAKIA:

Lehenengoa.- Igeldoko Toki-Entitate Txikiaren 2025-2027 Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartzea.

Bigarren goa.- Igeldoko Toki-Entitate Txikiaren Gardentasun atarian argitaratzea.

7. Kide anitzetako organoetarako Igeldoko Toki-Entitate txikiko ordezkariak izendatzea

Gipuzkoako Foru Aldundiak, abenduaren 17ko 58/2024 Foru Dekretuaren bidez, Donostia udalerrian Igeldoko toki-entitate txikia eratu zuen. Foru dekretu horren zortzigarren atalean ezartzen zen moduan, Donostiako Udalaren eta toki-entitate txikiaren arteko Bitariko Batzordea eratuko da, alderdi bakoitzetik kide kopuru bera izango duena eta, besteak beste, ondorengo funtzio hauek beteko dituenak: eskumenen eskualdaketa mailakatua gauzatzeko prozesuaren baitan dagozkion azterketak eta proposamenak egitea, udalaren ekarpenak kalkulatzeko formularen egokitasuna aztertzea, eta, behar izanez gero, eguneraketak proposatzea, eta aparteko ekarpenak aztertu eta proposatzea.

2024ko otsailaren 22an Donostiako Osoko Bilkurak, Igeldoko toki-entitate txikia sortzeko amaierako erabakia hartu zuen; eta erabaki horren zati gisa «Igeldoko toki entitate txikiaren proiektua» deitu dokumentua onetsi zuen (2024ko urriaren 24ko UdalbatzaK zuzendu eta osatu zuena). Hain zuzen ere, justifikazio azterlanak ezartzen zuen Batzorde horren osaketa; Igeldoko Toki Entitate-txikiari dagozkion kideak ondorengoak dira:

- ◆ Kudeaketa Batzordearen ordezkaria edo auzo-alkatea, edo beronek izendatutako pertsona
- ◆ Kudeaketa Batzordeak edo TETak izendatutako pertsona
- ◆ Toki entitate-txikiaren lege teknikaria

Batzorde honen araubide juridikoa Administrazio Publikoen Araubide Juridikorako 40/2015 Legearen 15. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa izango da. Bertan ezarritakoa kontuan izanda, bere funtzionatzeko modua alde bien adostasunean oinarrituko da.

Hori dela eta Igeldoko Toki-Entitate txikiak bere Batzorde kudeatzailearen ordezkariak izendatu behar ditu Bitariko Batzorderako eta Donostiako Udalari ordezkari horien onarpena jakinarazi, ondoren, Bitariko batzordea formalki osa dezan.

Hortaz, apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 4 eta 22 artikuluan; Toki Araubidearen Testu Bat egina 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 41.1 artikulua; eta azkenik, udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeetan batzorde kudeatzaileak eratzea arautzen duen ekainaren 10eko 608/1988 Errege Dekretuak, xedatutakoaren arabera, aurretik edukiaren azalpenak emanda eta eztabaida izanda, Igeldoko Toki-Entitate Txikiko Batzorde Kudeatzaileak, ondorengo erabaki du aho batez:

LEHENENGOA.- Bitariko Batzordekide modura Igeldoko Toki-entitate txikiko Batzorde Kudeatzailearen ondorengo ordezkariak izendatzea:

1. Iker Zinkunegi Arrillaga
2. Eneko Dorronsoro Aierbe

BIGARRENA.- Bitariko ordezeko Batzordekide modura ondorengo Batzorde Kudeatzailearen ordezkariak izendatzea, jarraian zehazten den hurrenkeraren arabera:

1. Karmele Garmendia San Sebastian.
2. Pedro Maria Galarraga Treku
3. Iñigo Barandiaran Benito

HIRUGARRENA.- Donostiako udalari, ordezkari horien izendapena jakinaraztea

Batzorde Kudeatzaileko Presidentea

Sin.: Iker Zinkunegi Arrillaga

**Idazkaria
Donostiako udaleko Idazkariaren eskuordetzaz**

Sin.: Iruñe Larrea Sistiaga

